

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juanita Irigoras Zabala

*Gernika-Lumo,
Bizkaia
(1917-2017)*

Aurkibidea



Biografia



1917an jaio zen Kortezubiko Elorriaga auzoko Lapikote baserrian. Ama Kortezubikoa zuen eta aita mendatarra. Umetan Belendizeko (Arratzu) eskolara joan zen, baina dotrina ikastera Kortezubira. 10 urterekin Ajangizeko Goitti baserrira joan ziren bizitzera eta bertatik Gernika-Lumoko karmeldarren ikastetxera joaten zen; Belendizeko eskolak euskaraz izaten ziren, Gernikakoak, oster, gaztelaniaz. Gerra aurretik "Taberna Vasca"n ibili zen beharrean sukaldari-laguntzaile. Gernikako bonbardaketak kalean harrapatu zuen eta [Errenteria](#) auzotik Oleskoko baso batera joan ziren ezkutatzera etxera bueltatu aurretik. Handik zortzi egunera Frantziara joan ziren ebakuatuta, eta bertan egon ziren irailera arte; bere osaba bat Rotaetxe ministroaren gidaria zen eta hark lagundu zien ebakuazioan, Bermeotik Algortaraino helduz Bordeleraingo itsasontzia hartzeko. Bere neba bat frontean ibili zen eta Valentziako kartzelan egon zen preso denbora askoan. Beti aritu izan da baserriko lanetan. 32 urtegaz Ispazterreko [Juan Okamika](#)gaz ezkondu ostean [Txaporta](#) auzoko [Txaportaerdikoa](#) baserrira joan zen bizitzera. Lehen elkarrizketa (GER-022) bere senarrarekin batera egin zitzaion.

Zintak

GER-022

- **Proiektua:** Lumoko historia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zarrabeitia, Alberto

- **Data:** 1994-01-01
- **Iraupena:** 38 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

GER-027

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2010-04-14
- **Iraupena:** 117 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Txitxi-burruntzi eguna; bizimoduaren aldaketa

- **Erref:** GER-022/011
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:12:52. **Bukatu:** 00:14:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Inauteriak. Garizuman sartu aurreko domekan Txitxi-burruntzi eguna ospatzen zen. Garizuman ezin izaten zen eta egun horretan txerrikia jaten zen: txorizoak eta urdaia burruntzian erreta. Lehen ez zegoen asko eta gutxirekin ere gustura. Gauzak nola aldatu diren. Juan Ispastertik oinez etortzen zen Lumora, izebaren etxera, gonbidatu gisa. Ze jateko egoten zen.

2. Abadeari ordaintzeko ohituren inguruko azalpenak

- **Erref:** GER-022/019
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:20:22. **Bukatu:** 00:21:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Elizako hilerrien inguruko azalpenak. Juana Kortezubiko elizara joaten zen amamarekin. Trapuaren gainean txakur handia eta azpian zentimoa. Abadea etortzen zenean erresponstua botatzen, txakur handia ematen zitzaion. Gero, berriz etortzen zen abadea eta eliza aurrean musu ematen zioten denek haren estolari. Orduan, zentimoa botatzen zuten otarretxo batean.

3. Abadea etxerik etxe elikagaiak batzen

- **Erref:** GER-022/021

- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:21:54. **Bukatu:** 00:22:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Abadea eta sakristaua "zelemina" (lakaria) batzen ibiltzen ziren etxerik etxe; artoa eta garia batzen zituzten. Zaratamon, urtero, abadeak bedeinkazioa egiten zuenean, etxe bakoitzetik oilo parean eraman behar izaten zioten abadeari.

4. Umea jaio eta 40 egunera elizan sartzera

- **Erref:** GER-022/024
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:26:40. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Umea jaio eta 40 egun pasatutakoan, ama umearekin elizan sartzera joan behar izaten zen. Kandela eraman eta elizan lagatzen zen. Ordutik aurrera joan omen zitekeen andrea beharrera. Ohitura hori betetzea ia ezinezkoa izango zela diote, etxean behar asko egoten zen eta.

5. Erbia harrapatzen joateko meza utzi zuen abadearen ipuina

- **Erref:** GER-022/028
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:31:04. **Bukatu:** 00:32:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Juanaren aita Mendatakoa zen eta umetan hara joaten ziren, gonbidatuta. Amamak kontaktzen zuen ipuina: ehizarako zaletasuna zuen abade batek behin meza utzi ei zuen erbia harrapatzen joateko. Zer gertatu zitzaion.

6. Oinaztutik babesteko aterkia

- **Erref:** GER-027/003
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:03:03. **Bukatu:** 00:06:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Aharitxo batekin izandako kontakizuna. Gaiztoak izan arren, ez zituzten askorik zigortzen. Doña Romana maistra ona zen; baina doña Luisa, bere laguntzailea, ez. Behin, Juanitari erregela apurtu zion eskuan. Maistra euskalduna zen, arratzuarra; hori dela-eta, euskaraz ikasi zuten. Katezismoa ere doña Romanarekin ikasi zuten, hori ere euskaraz. Belendiztarrak jaunartzea Arratzun egiten zuten eta bertako umeei Arratzura laguntzen zieten; egun euritsu batean, bertarako bidean gertatuko pasadizoa kontatzen du: oinaztuak (tximistak) ez harrapatzeko aterkia aldrebes eraman zuten.

7. Jaunartzea; dotrina euskaraz

- **Erref:** GER-027/005
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 00:08:01. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Kortezubiko don Bizente, don Bittor eta "Gorritxu" aipatzen ditu. Don Bizentek emakumezkoak ikusterakoan alde batera begiratzen zuen. Jaunartzean eramandako arropa zelakoa zen kontatzen du, harro joan zen. Gane auzoko mutil bati abadeak gaiztakeriaren bat-edo egin zuelako belarritik tiratu zion. Dotrina euskaraz ikasi zuen. Behin dotrinara Kortezubira joan barik Gautegiz-Arteagara joan ziren.

8. Sermoi gogorrak

- **Erref:** GER-027/007
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:12:38. **Bukatu:** 00:13:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Sermoiak pulpitutik egiten zituzten. Baltsean egitearren gogor egiten zieten bekatua zen-eta, soltean baino ezin zen egin dantzan.

9. Karmeldarren ikastetxean

- **Erref:** GER-027/009
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:16:42. **Bukatu:** 00:17:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Karmeldarren ikastetxean, debaldekoan, beheko solairuan egoten ziren. Gaztelaniaz ikasten zuten; oinez joaten ziren goizez zein eguerdiz. Doña Bitoria, doña Eusebia eta doña Petra mojak gogoratzen ditu.

10. Belendizko eskola karmeldarrena baino hobea

- **Erref:** GER-027/011
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:19:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Belendizko eskola karmeldarrena baino hobea zen tratu hobea ematen zietelako. Bietan ikasi zuten josten; Belendizen kakorratz (gantxillo) dotoreak egin zituela dio.

11. Nebaren gaiztakeriak

- **Erref:** GER-027/013
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:19:20. **Bukatu:** 00:23:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Bere aita Ameriketara egon zen artzain. Amarekin eta aitona-amonekin hazi zen Juanita. 3 neba-arreba izan ziren, bera bigarrena. Bere neba zaharrena, Segundo, gaiztoa zela dio; horietako gaiztakeria bat kontatzen du. Amak txerri artean utzi zuen preso zigor modura. Behin, ezkaratzeko (sukaldeko) armairuko trasteak atera eta oilandak eta oilaskoak sartu zituzten bertan. Beste behin, aitaitaren eskopeta hartuta, sabaiko leihotik tiroka ibili zen bere neba.

12. Gaueko bederatziatarako etxera

- **Erref:** GER-027/015
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:23:37. **Bukatu:** 00:26:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Ajangizeko erromerian panderoa egoten zen, Gernikako Pasealekuan, aldiz, banda. Gaueko bederatziatarako etxera joan behar izaten ziren. Behin San Juan Ibarako erromeriatik ordu erdi berandu joan zen eta etxeko atea zarratuta aurkitu zuen, ama erratz kintenarekin irten zitzaion atera.

13. Konfesioan ezin dena kontatu

- **Erref:** GER-027/017
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:27:30. **Bukatu:** 00:28:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Mutilak joaten ziren neskei dantzan eskatzera. Ostean konfesatu egin behar izaten zuten; hala ere, ez zuten dena kontatzen

Transkripzioa

- Ta zelan izeten zan? zu joaten ziñen mutillari jantzan eskatzen eitteko edo bera etorten zan edo zelan izeten zan hori?
- Eurek etorten ziren. Nobera joan?
- Baiña beti gustokoa ez zan izengo.
- Soltien batien soltien jotzen eben musikie ta beste batzuten agarrauen ta.
- Ta gero, konfeseu bihera? gero konfesetan?
- Bai. Baia guk be danak konfesiñoak be ez genduzen esango. Oin konfesionaridxoak be kendute dauz ta oin dana libre.
- Lehen dana esaten zan, ezta?
- Lehen dana esan biher. Oin fazilidade handidxez dauz, antziñe ez.

14. San Raketako "Tio vivo"ak

- **Erref:** GER-027/019
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:28:43. **Bukatu:** 00:30:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

San Raketan "Tio vivo"ak egoten ziren. Behin, "Tio Vivo"ko katearen olioarekin arropa zikindu zuen eta ordutik aurrera ez ziotean arropa berririk erosten jaiak pasatu arte. San Juan Ibarako plazan egoten ziren "Tio vivo"ak.

15. San Pedro osteko domeka

- **Erref:** GER-027/021
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:31:00. **Bukatu:** 00:31:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Pasealeku behean San Pedro eguneko hurrengo domekan erromeria egoten zen Lumoko jaiak zirela-eta; Gernika eta Lumoren arteko muga hortxe dago.

Transkripzioa

- San Pedrorik hurrungo domekan hortxe behien, hor eskillaratatik behera bajatute, hantxe kafien eurrien erromeridxe.
- Arrienien eurrien?
- Ha partie Lumona. Gernike, Gernike, Gernike handik Andra Marixko elizien ondotik behera bakarrik; ta beste guztidxe Lumona. Ta gero Lumok eta Gernikek bat ein eben ta.

16. Kanposantura gorpuak ikustera

- **Erref:** GER-027/027
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:35:53. **Bukatu:** 00:39:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

<p>Gerra sasoian, bere lagun batek mutil batzuk ikusi zituen kamioi batean, eta lo zeudela pentsatu zuen. Bonbardaketa egunean, bendajearekin etorri zen Gernikara. Soldaduak beraien etxera taloa eta esnea jatera joaten ziren. Ez zekiten bere neba non zegoen eta kanposantura joan zen bere lagun batekin ea gorpua han zegoen ikusteko; 7 gorpu zeuden, baina bat bera ere ez zen Segundorena. Lurperatzaileak esan zien ez zegoela ajangiztarrik hildakoen artean.</p>

17. Bonbardaketan Erreteriatik Oleskoraino ihesi

- **Erref:** GER-027/029
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:39:56. **Bukatu:** 00:42:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Bonbardaketa egunean bere lagun Marirekin abarketak erosten joan zen Teresatxunera. Handik Erreteriatik auzora joan ziren; eta, "Gernika" tindategiaren aurrean zeudela, San Juan Ibarran bota zuten lehenengo lehergailua. Dena ketan hasi zenean, bertako atari batean sartu zen beste andre batekin. Erreteriarantz zihoazela, beraien etxetik hegazkinak zeuden; beraien atzetik zetozenak bertan hil egin ziren. Oleskoraino joan ziren arrapaladan eta bertako baso batean ezkutatu ziren.

18. Arbola baten atzean ezkutatuta

- **Erref:** GER-027/031
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:43:03. **Bukatu:** 00:44:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Oleskoko basoko arbola batean atzean egon zen ezkutatuta. Ondoko landa batean "Taverna Vasca"n ostatu hartuta zeuden madrildar batzuk egon ziren. Hegazkinek alde egin arte, ez ziren handik mugitu. Gero, karkaba batera joan ziren eta Arratzuko mutil bat ere beraiekin egon zen. Bonbardaketa bukatu zenean, etxerantz joan ziren, Burgobekotik Ajangizko bidera.

19. Bonbardaketa eguneko gaua

- **Erref:** GER-027/033
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:45:03. **Bukatu:** 00:46:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Bonbardaketa eguneko gauean, trena jendea batzen zebilen jendea ebakutzeko. Gorrien munizioak su hartu zuen. Ez zitzaion familiako eta auzoko inor hil. Hurrengo egunetan, baserriei eraso egingo zietelakoan, jendea karkabetan ezkutatu zen.

20. Kupoaren entregatu behar; errazionamendua

- **Erref:** GER-027/037
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:49:11. **Bukatu:** 00:52:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):**Laburpena:**

Ajangiztik Gernikara, Larrondonera, entregatu behar izaten zuten indaba, artoa, garia... Errazionamendua Gernikako denda ezberdinetan ematen zuten.

21. Guardia Zibilak Erreterian

- **Erref:** GER-027/039
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:52:12. **Bukatu:** 00:54:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Erreteriarako bidegurutzean Guardia Zibilak egoten ziren bestaldetik (Ajangiz, Kortezubi, Nabarniz...) zetozenak harrapatzeko eta zekarren jeneroa konfiskatzeko. Arratzuko andre bat zaldiz etortzen zen Gernikara eta haren anekdota bat kontatzen du. Saraspen, Melitonen atzean, zegoen kuartela.

Transkripzioa

- Erreteridixen Guardia Zibilek egoten ziren Nabarnizetik eta Kortezubitik-eta, hortik, Ajangiztik-eta, datozenak atrapatuko, Guardia Zibilek itxeraitzen han. Ta danak errekestetan, ta hor, Arratzun, andra bat geizto-geiztoa egon zan, plazan be beti egoten zan zarataka iñok erregatietan

batson o jaten zera agirikak eitten eta arrantzaka beti. Ta baten etxatorren beran zaldidxe euki ban, ta traillen dabela, ta "a ver si trae alguna maleta", "si, ahí atrás vienen" esan zotson /esantson/. Ta guarda zobille joan ta errekesteu ta errekesteu ta errekesteu ta errekesteu beran zerak eta: ¿dónde estan pues?" "¡ahí atrás!" bestiek. Ta ostabe baia "¿pero dónde?" "ahí tiene el burro las paletas pole...las pelotas" esan zotson /esantson/. Guarda zobilleri be barrieri urten zotsien ta eskapeu ein biher zeban /bizeban/. "Ahí tiene las maletas, ahí atrás el burro". Baia ha andrie beti egoten zan plazan be danari zarataka agirikaka iñok erregatietan batson barritz, Jesus!

- Guarda Zobillek esan dozu ta, nun egoten ziren Guarda Zobillek Gerniken?
- Hortxe kurtzeroan, Erreteridxe kurtzeroan.
- Ta kuartela nun euki eben?
- Kuartela nun euki eben Guarda Zobillek orduen, ba? ez naz akordetan.
- Saraspen ez bien euki kuartela?
- Bai, bai. Bai hortxe, Melitonen atzien.

22. Neba preso

- **Erref:** GER-027/041
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 00:55:11. **Bukatu:** 00:58:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Guardia zibilak dendarik denda joaten ziren jeneroa eskatzen. Bere neba Gaztela aldean hartu zuten preso; fusilatzeko zituztela, hegazkin bat hurbildu eta alde egitea lortu zuten. Urte askoan egon zen Valentziako langile-batailoietan, okindegi batera eraman zuten lanera; ogirik ez zitzaion falta, behintzat, lodituta bueltatu zen-eta.

23. Gernikatik Frantziarantz

- **Erref:** GER-027/043
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:58:52. **Bukatu:** 01:02:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Bere osaba Rotaetxeren gidaria zen eta harekin joan zen Frantziara ebakuatuta; Rotaetxe, sasoi hartan, aginpidea zuena zela dio. Gernikatik ezin izan zuten bide jeneraletik joan eta kanposantu aldetik irten ziren Gernikatik: Burgoa-Bizkerre-Bermeo-Algorta bidea egin zuten autoz. Itsasontzia hartu zuten bertan.

Transkripzioa

- Zera dala ta jua ziñien Frantzire ba?
- Ba ebakueu ein ziren jentie.
- Alaba: Zuk esan biher dozu /bizu/ tiok ze biher eitten zeban, ta tiogaz

joan ziñen zu.

- Bai. Tiogaz ta tia-ta.

- Alaba: tio ze izen zan?

- Tio Rotaetxen txoferra.

- Alaba: ta ze ordena euki eban? ze ordena euki eban tiok?

- Ez dakitz ze ordena eukiko eban, harexegaz txofer ibiltzen zan-ta.

- Alaba: Itsosora botetan kotxe guztidxe-eta ez ziren ibilli, bestiek sartzen egon zirenen?

- A ez dakitz.

...

- Rotaetxe nor zan ba?

- E?

- Rotaetxe nor zan edo zer zan?

- Ba aginpidie euki eban hantxe, hamen Euskel Herrixen.

- Ministroa, ministroa-edo?

- Ez dakitz zer izen zan.

- Ta lehen txoferra? eta, nortzuk joan ziñien ba hareñe?

- Ta gero zerien egon giñen Algortan. Hametik ebakueta.

- Alaba: Baiña nundik joan ziñien Gerniketetik? harek bestiek sartzen eta zuek urtetan nundik ibil ziñien?

- E?

- Alaba: Tian eta tion kotxien sartun ziñienien eskapetako, nundik eskape zenduen?

- Nundik eskape gendun hara?

- Alaba: Nundik joan ziñien bidien eskapetan?

- Kanposantu bide, bide jeneraletik ez, ze igonda egon zan bestiek Burgoko puntera ta. Ta neuk esan notson: "hortik libre-libretik bagoaz tirtuko doskue, ta hortik kanposantutik bueltan joango gara", ta handixik joan gintzezan. Ta orduko goittik behera bajatute Ajangizko Elizaldien hillek ageri ziren, ta sartu kotxien ta joan giñen ta Burgoatik ipilako deskargie ein zoskuen ta [...] burue bajatu behera eta: "beherei behien joan e burue behien dozuezela". Ba pase giñen han Bizkerre parien ta gero ba handik e erreka izkiñetik, Bermiotik Algortara.

- Ta Algortan?

- Algortan gero ein eban ha Frantzirekoa ein zotson /eintson/ Rotaetxek, ta zera barkue bete dala ta jentie bueltan. Danak esaten oskuen /esateskuen/ ze ez joateko ze bete dala barkue ta zerak kanpora altxe diela mahaidxen dauzenak be ta. Ta zerak e, Rotaetxek, guri ofiziñen eingo dabela eingo dabela berak eta sartzeko zerien, barkuen.

24. Frantziara itsasontziko kubiartan

- **Erref:** GER-027/044
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 01:02:18. **Bukatu:** 01:05:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Frantziarako itsasontzia Algortan hartu zuten. Gauean, asko mareatuta ziren, eta bera lehengusina txikiarekin kubiartara joan zen. Gizon batek, ama-alabak zirelakoan, esnea eman zien. Izekori kontatu zionean, izeko haserretu

egin zitzaion esnea berak behar zuela esanez. Bordelera heldu zirenean, errefuxiatuak gela batera sartu zituzten eta ogi zuria eta gazta eman zieten jaten.</p>

Transkripzioa

Ba gero gabaz han danak mariatute, danak mariatute. Ta ez dakitz zelako gerrako Jose Luis Diezek-edo urten dabela ta ez dakitz nundik bueltie ein biher izen dabela barkuek hareri eskapetako ta joan giñen. Ta danak mariatute egon ziren barkuen ta ni tian umiegaz kubiarta ganera urten naben, barkuko kubiarta ganera. Ta etor jaten gizon bat ta esan osten baze harek umiek... rubidxie dala esan gure izen eban ta ni morenie, ta baietz, ta harek pentseten eban ha umie neurie dala ni bakarrik han kubiarta ganien kaja baten ganien jarritte-ta. Ta gero joan zan gizon hori barrure ta botillekada zera ekar eban, esnie txupeta eta guzti umieri emoteko, ta emon notson ta truke-truke dana akabeu umiek. Eroan eban eta gizon horrek barrure ta gero nun ekarten eustan /ekartestan/ neuri katillu bete kafe ta esne. Ta ederto neu be pareu, hareri umieri emoteko biher dotela / bitela/ esaten eusten /esatesten/. Edan ta joan nitzen barkure barrure ta esan notson tiari ze paseu jaten, berak biher izen dabela hori ta berak biher izen dabela ta gure tia hasarratute, "bai, baia ez zara egon han ta!", ta eroan ein biher notsola /binotsola/ berari, harexe barrure joango nitzen hartun katillue eta berañe. Ta gero bajatu gintzezan ha ez dakitz nun izen zan Burdeos-en-edo, ta zera, "pasajeras o estos, refujiaus o pasajeras" ta "refujiaus" garela gu ta "refujiaus" hara barrure sala batera, "pasajeras a la calle", ta harek kalera. Ta ekarri oskuen /ekarriskuen/ ogi zuri bet elegantiaua, gozoa! ta ez dakitz zer izen zan gaztaie-edo beste bat, ta jaten emon oskuen hantxe.

25. Bordelera iristerakoan

- **Erref:** GER-027/045
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 01:05:27. **Bukatu:** 01:09:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Itsasontziz Bordelera heldu ostean, trena hartu zuten; eta, euria hasi zuenez, gaua trenean igaro behar izan zuten. Hurrengo goizean, jendea leku ugaritara banatzen hasi ziren. Bidaia horretan gizon batekin izandako anekdota kontatzen du. Daux-eko hotel dotore batera eraman zituzten. Hotelak denetarik zuen: zinema, autoentzako tailerra... baina komunik ez.

Transkripzioa

Ta gero joan gintzezan hara trenien sartunde. Ta emoten deu euridxe eta trenetik ezin bajatu, euridxe ta euridxe ta euridxe ta euridxe ta euridxe ta esan doskun baze bertan trenien egon biherko dogule /bikogule/ gabaz ba gaba hantxe pase biherko dogule /bikogule/, ta hantxe. Ta bidxamon goizien errepartetan hasi zien batzuk hara herrire ta bestiek bestera ta leku diferentietara. Ta sartu gintzezan kotxietan ta ni txoferran ondoan, ta bestiek atzien eta horko Renteriako mutil zahar bat joan zan, ez dakitz zer

euki eban ziriñetan egon bazan ez dakitz, esan doste baze: "¿oiga joven! ¡dile a ese chófer que se pare!", ta neuk esaten notson baze harek atzekoak diñola gelditzeko, señie eitten notson txoferrari, ta txoferrak barre eitten eustan /eittestan/. Ta oso zarata harek atzekoak, ta ostabe esaten notson ta ezebez. Ta halakoan baten geldittu zen, ta etxe baten andra bat eta neska bat egozan atien, ra! euren bittartetik sartu zan barrure gizonari, ta etor zan gero ta ostabe eurrera. Ta allege gintzezan geu egon giñen lekure ta esan zotson /esantson/ patronieri ia komune nun dauen ta "lalalalalala" esan otson /esantson/ ta neuk esan notsan: "¿oiga dónde esta el retrete?", eta: "que coño me estás diciendo si no he visto retrete?", "y dónde has hecho pues?", "ahí en el jardín debajo de un árbol" esan dosten. Ai, halakorik! Ta hotel elegantie izen zan e, elagantie, ziñie be bertan emoten eben eta dana e, behien kotxiek-eta arregletako zerak egon ziren, ta ziñie be bertan ta dana bertan emoten eben. Ta hotela elegantie izen zan e, elegantie hotela, baiña komunik ez, komune jardiñien. Kuboak kuartuetan tapiegaz ta jardiñien zera, kasetie, alderdi bikoa: henbrana eta gizonana.

26. Daux-en I

- **Erref:** GER-027/046
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:09:06. **Bukatu:** 01:10:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

<p>Ez ziren gernikar asko egon. Bilbotar bat 3 umerekin, Portugaleteko 3 ahizpa, mutiko bat eta moja bat egon ziren. Bordeletik Daux-era joan ziren, mugatik 367 kilometrotara.</p>

Transkripzioa

- Eta nungo jentie gehidxau egon zan? gernikarrak egon ziñien asko edo nungo jentie?
- Ez. Bilbokoa bat hiru umegaz ta Portugaletekoak beste hiru aizte ta mutiltxu bet. Ta gehidxau nor egon gintzezan ba? gehidxau malamonja bat, ha gero Ameriketean euken aiztie eta Ameriketara erun zeban aiztie, ta besterik ez.
- Eta Burdeoson bertan egon ziñien edo beste nonora mobidu ziñien?
- Burdeoson ez giñen, Daux-en.
- Ta hori zer dau Burdeosetik hurbil-edo?
- Hirurehun eta hirurogeta zazpi kilometro egozala fronteratik esaten eben eta ez dakitz nik nun izengo zan.

27. Daux-en II

- **Erref:** GER-027/048
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:10:30. **Bukatu:** 01:12:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

Daux-en zeudela, ez zen geldi egoten: neskameari laguntzen zion arropak-eta garbitzen. Irailaren 3an, etxera bueltatu ziren.

Transkripzioa

- (Alaba): Baia biher eitten zendun han be laguntzen.
- E?
- Biherrik ez?
- Biherrien nik kridxedieri laguntzen notson, ni geldi ez nintzen iñoz be egoten. Kridxedieri laguntzen notson labaderoan ta erropak errekan jotan ta danien.
- Ta gero ze ein zenduen, buelteu? Setienbrien buelteu, irailien buelteu esan dozu?
- (Alaba): setienbrien honantz etor ziñen.
- Bai, setienbrien hiruen ta zortzidxen izen zien bertako jaidxek. Ta karteruek esan eustan /esastan/ soldadu dauela eta hillien zortzidxen etorko dala ta ondo pase biher dogule /bigule/ han, ta ha etorri orduko eskape naben nik.
- Eta? Ajangizera bueltan edo bertora? edo nora joan ziñien?
- Bueltan Ajangizera. Nora joan nintzen ba? aitte ta ama hantxe euki nittuzen ta.
- Ta gero zer etzeko biherretan-eta, edo zetan jarraitu zendun gero? Buelte ziñienien etzeko biherretan edo zetan jarraitu zendun?
- Etezko biherretan. Ez neken nebarik biher eitteko ta aitteri laguntzen

28. "Taverna Vasca" maletazaina

- **Erref:** GER-027/050
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:13:04. **Bukatu:** 01:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

<p>Gerra aurretik "Taverna Vasca"n ibili zen beharrean sukaldari-laguntzaile legez. "Maleteroa" egoten zen jendearen bila tren-geltokira joaten zena. Andre bat egoten zen kalean egunkariak saltzen "Euzkadi, Euzkadi roja, ´rgano de la juventud del Partido Comunista de Euzkadi mundo obrero" oihuka, eta emakume hura segika izaten zutela esaten zuen maletazainak. Maletazaina kartzelan sartu zuten eta Juanitak eramaten zion tabernatik jatekoa.</p>

29. Gernikako kartzela

- **Erref:** GER-027/052
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:15:08. **Bukatu:** 01:16:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Gernikan kartzela dotorea zegoela dio, gaur egun Baste dagoen tokian. Juanitak "Taverna Vasca"ko behargin bati eramaten zion jatekoa.

30. "Taverna Vasca"n jornalik ez

- **Erref:** GER-027/053
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:16:27. **Bukatu:** 01:19:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>"Taverna Vasca"ra Madrildik-eta etorritako jendea egoten zen uda pasatzera etorritakoak. Ez zuen inolako jornalik jasotzen, ikasten joan zela dio. Bertako ugazabak, Julik, plazara bidaltzen zuen erosketak egitera, eta baserritarrek Julirekin egiten zuten zuzenean tratua. Ugazabak ajangiztarrak ziren. Bonbardaketan bertan lanean zebilen mutil bat hil zen.</p>

31. Guardia Zibilen kuartelera deitu zuten

- **Erref:** GER-027/054
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 01:19:09. **Bukatu:** 01:22:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Frantziatik bueltan, Guardia Zibilen kuartelera joateko errekadua eman zion aguazilak. Arratsaldeko 5etan bertan agertzeko esan zion; eta, 5etan agertzen zirenak 6etako trenean Bilboko kartzelara eramaten zituztenez, Juanita maleta eta guzti azaldu zen bertara. Azaldu zen, baina etxera bueltatu zen, esan zioten ez egiteko inon errekaduei kasu.

32. Liberazioko egunean Bilbora I

- **Erref:** GER-027/055
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 01:22:26. **Bukatu:** 01:25:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Ajangizko udaletxetik gutun bat bidali zioten liberazioko egunean Bilbora joan zedin, borla gorridun txapel gorria zuela. Bere neba ezpata-dantzaria zen eta haren txapelarekin joan zen. Trenez joan zen bere lagun batekin, Linarekin, Lina ez baitzen sekula Bilbon egon. Bilbora heltzerakoan Areatzara joan ziren.

33. Liberazioko egunean, Bilbora II

- **Erref:** GER-027/056

- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 01:25:28. **Bukatu:** 01:28:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Bilbora heltzerakoan, Areatzara joan ziren. Erdiko kalean zeudela, arratsaldeko bostetan Jesusen Bihotzaren aurrean desfilea zegoela zioten bozgorailuek eta beraiek 7etan zuten etxerako trena Atxurin; desfilea ikusi barik bueltatu ziren etxera.

34. Etxean egindako xaboia; sutako hautsa

- **Erref:** GER-027/060
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:31:18. **Bukatu:** 01:33:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Ajangizen etxean egiten zuten xaboia. Bere amamak izarentzat-eta sutarako hautsa erabiltzen zuen, baina amak ez. Arropei xaboia eman eta erre kara eramaten zuten garbitzera. Bere etxean ur asko egoten zen, Erreterriako auzora ere handik eramaten zuten ura.

Transkripzioa

- Zelan garbitzen zenduezan erropak, labadorarik-eta ez zani en egon?
- Jagoi, jagoiek etzien eitten genduzen guk Ajangizen.
- Eta, zelan eitten ziren?
- Ez dakitz nik zegaz eitten genduzen baia.
- Txarridxen koipiegaz-edo...
- Baten Rotaetxen, Rotaetxen seño rie eta kridxerie etor jakuzen inddabatan, inddabak gure dittuela /guttuela/-eta, ta jagoien trukien gure dittuzela /guttuzela/. "Jagoiek han dekuz guk, zerien, armaridxoan gani en zera etzien eindde". Ikusi zittuzen eurek be beittu zotsien /beittutsien/ harexen trukien, eurek etzien ein jagoiek eta inddabie emoteko harexen trukien. Eta guk etzien eindde dekoguzela jagoiek, etzien eitten genduzen-ta.
- Eta zelan ez dakizu?
- Ez. Ahaztu dxate niri.
- Eta heutse ibiltzen zan, surteko heutse?
- Surteko heutse? zetako?
- Garbitzeko erropak.
- Ez. Antziñe gure amumak eukitten eban hori, surteko heutse. Botaten otson ganetik, ipini lelengo izera zahar bat-edo eta gero ganetik ha botaten eutson zuritteko amumak. Baia amak iño z bez.
- Zuek ez? ta zer eitten zenduen, jaboneu eta gero, erre kara edo nora joaten ziñien?
- Erre kara.
- Ze euki zenduen etze alboan erre kie edo...
- Bertan. Gure etzien ur askok urteten eban, Erreteridxera be geuretik

eroan ben ure. Ta bertan be deposittue han egoan ta behien labaderoa eta txorroa daridxola beti. On be halantxik egongo dire han.

35. Arropentzako ereinotza

- **Erref:** GER-027/063
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 01:34:32. **Bukatu:** 01:35:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Bere amamak arropen ereinotza botatzen zien sutarako hutsarekin batera usain ona izateko.

Transkripzioa

- Eta etzie garbitzeko, etzie zelan garbitzen zan lehen? ze eskobarik eta fragonarik-eta ez zan egon.
- Fregonarik eta holakorik ez baia eskobie bai, baia fregonie ta holakorik ez.
- Ta belauniko?
- Gurien ezkatzen egon zan ha baldosie beste lekuten ez, ta baia han beleuniko pareta eitten naben nik.
- Eta bedarrik-edo ez zenduen ibiltzen, ereinotza-edo usin gozoa eukitzeko edo holako ezer?
- Ez. Hori gure amamak Lapikoten bizi giñenien eitten ban ereinotza ta bota ta zer zesto baten ipini danak eta izera guztidzek eta surteko heutse eta ereinotza eta horrek botaten zotsozen /botatetsozen/ usiñe eukitzeko, usin gozoa.

36. Errotara

- **Erref:** GER-027/068
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:39:06. **Bukatu:** 01:41:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Txaportan Arabietako errota egon zen; Kanpantxun Errotabarri, Goikoerrota eta Estilotza. Juanitaren etxekoak Arratzuko Elizaldera joaten ziren, Arratzuerrotara. Arratzuerrotan gariaren zein artoaren irina egiten zuten. Marmiztik joaten ziren gauzez.</p>

37. Prozesioak eta letania

- **Erref:** GER-027/070
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:42:19. **Bukatu:** 01:43:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Ajangizen ez zen prozesiorik egiten; baina Gernikan eta Mendatan bai. Mendatakoak beraien etxe ondotik pasatzen ziren abarketa gorriekin. Letania Santiago aurreko hiru egunetan egoten zen. Bere aita ere sarritan joaten zen aurretik gurutzea eramaten.

Transkripzioa

- Prozesiñoak? Zerenak?
- Santuenak.
- Ez. Ajangizen ez, Gernikera. Gernikera baitte Mendatatik be geure etze ondotik behera bajatzen ziren abarketa gorridxekaz-ta mutillek apostoluk-eta ikusten.
- Eta letaiñie-eta egoten zan?
- Letaiñie egoten zan ha Santixau eurreko hiru egunetan. Hamen be hona Kanpantxuko erminttera hona bestera ta Errenteridxera joaten ziren, hiru lekutera.
- Horrek danak akabe die ya.
- Akabe die horrek.
- Eta zelan izeten zien? zelan izeten ziren horrek, prozesiñoak eta letaiñie-eta?
- Gure aitte be sarriten joaten zan ha kurtziaz eurretik eta abadie ta. Gero mezie emon han ermintten ta etzera.

38. Soroak bedeinkatzen

- **Erref:** GER-027/072
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:43:57. **Bukatu:** 01:44:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Erramu egunez gurutzeak bedeinkatzen ziren ereinotzarekin; ostean, soroan jartzen ziren hiru palo ereinotzarekin ur bedeinkatua botata.

Transkripzioa

Soloak Erramu egunez eroaten zien horrek kurtziek dozena bat edo holako bat ereiñotzakaz-ta ipinitte lotunde bedeinketuten elizara. Ta gero harek elizan edo soloan ipintten zien hiru palutxu ereiñotzagaz ur bedeinketue botata, halantxik.

39. Osaba, erru barik, 20 urtean preso

- **Erref:** GER-027/073
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 01:44:33. **Bukatu:** 01:48:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Mendatako osaba bat Zaratamoko Elizaldean bizi zen, eta gerran etxetik alde eginda zeuden. Etxera bueltatu zirenean, Guardia Zibilak joan zitzaizkion armarik-edo zuen galdetzen. Bere osabak bat bazuela esan zien. Kaxaren bat bazuen ere galdetu zioten, eta ganbaran bat bazuela esan zien. Gora igo eta esku-bonba, fusila... aurkitu zituzten kaxan. Atxilotu eta preso eraman zuten: heriotza-zigorrera kondenatu zuten. Azkenean, 20 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten; kartzelan zegoela bronkioetako gaitza hartu zuen.

Transkripzioa

- Ta guk tio bat euki gendun Zaratamon, Zaratamon.
- (Alaba): Hareri be ze pase jakon gerran ama?
- Gerran ze pase jakon? eurek etzetik aldeta egon zien hara beherau Zaratamoko Elizaldien bizi ziren eta. Ta gero, etzera joan zirenien han beheraure joanda eurek billurregaz, etzera joan zirenien ensegida Guarda Zobillek etzera. Ta ia armarik-edo badekon, ta bai, zera karterue dala ta jiroak eitteko zertute dekola ta badekola zera. Ia beste armarik ez badekon ta ez, ez. "Kaidxarik be ez dekozu?" ta "kaidxie bai". Joan ta erakutsi dotso kaidxie ta ezebez. "Beste kaidxarik ez dekozu?" ta "bai, sabaidxen tapie be apurtute ta retxazeta dauen bat", "ia, goazen ikusten ia!". Joan dire ikusten ta eskuko bonbie, fusille ta ez dakitz zertzuk han kaidxan, ta detenidu eben eta eroan eben preso eta hogei. Hiltzeko sententzixe emon ta zera hango Zaratamoko amerikano batek "branga" salto ein ei zeban hara zeran eurrera, ta esan ei zotsen baze: "horren lekuen neu afusileu hori kuperik bakoa da ta" esan zotsen, "horrek ez deko kulperik". Ta orduen hogei urterako kartzelie emon zotsien. Ta lekurik txarrien ipini eben, ure datorren lekuen goittik behera, ta etor zan bronkidxoak total zarratute, ezetako geuze ez dan moduen. Ta etor zan geurera be Asuntzixoatan konbidedu ta, bera Mendatako semie zan, gure aitte be bai baia. Ta Mendatara joateko gogoa berak eta ezin joan, ta gure aittek esan zotsen: "bai joango zara. Neuk prepareko dotsut astoa ta astoan ganiien joango zara hametexik zeretik, ez dakitz nungo zeretik behera bajatuko zara ta joango zara". Ta bote eban ta pozik etor zan bueltie eindde. Baia ez zan ba ha arnasa bete eziñik egoten zan. Ta kulpe bako gizona, kulperik bape-bape bako gizona.

40. Osaba soroak bedeinkatzen etxerik etxe

- **Erref:** GER-027/075
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:48:17. **Bukatu:** 01:49:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Zaratamon bizi zen bere osabak etxean atarterik ez zuela-eta elizpean jotzen zuen garia abadearen baimenaz, baina hurrengoko abadeak ez zion utzi. Etxerik etxe soroak bedeinkatzen ibiltzen zen eta bere etxera heldu zenean ezetza eman zion.

Transkripzioa

- (Alaba): Garidxegaz-eta zer pasetan jakon horrerri?
- Garidxekaz ezebez. Etarterik ez dekolez berak zerien e, elizpeko useten ez danan zerien jotzen zittuzen zerak, garidxek. Eurrerauko abadiak esan

zotson /esantson/ hantxe joteko ta joten zittuzen. Ta gero hurrungo etor zan abadiak ez zotson izten. Ta gero bera etzerik etze ibiltzen zan zera soloak bedeinketuten, ta kridxedie atzetik ta soloa bedeinketuten beneko etzien, edo koneju pare bat edo oillo pare bat emon biher. Ta eurenera joan zanian esan zotson baze euren soloak ez bedeinketuteko berak bedeinketuko dittule-ta, esan zotson gure tiok. Ta gero bestiek be, handik gora ez euren soloak zertuteko, zera Pedron soloatako laboriek eta eurenak bardiñek izen diela-eta, euren bedeinketuko dittuela, eta bedeinketutiek be akabeu eurenien be.

41. "Txikitxuten aittek eta amak..." abestia

- **Erref:** GER-027/077
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 01:50:36. **Bukatu:** 01:51:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>"Txikitxuten aittek eta amak fraile ninduen..." abestia kantatzen du.</p>

Transkripzioa

Txikitxuten aittek eta amak
fraille ninduan ondratu
estudidxoia ikasitera
Salamancara bialdu.
Salamancatik datorrenian
bidien etorren pentsatzen:
estudiante tunante baiño
hoba dabela ezkondu.
Ezkondu nitzan ezkondu, baiña
bai milla biderrez damutu,
praka baltzetan hari zuria
sekula etxaden faltatu.

42. "Doniene bezpera gabien..." abestia

- **Erref:** GER-027/079
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 01:51:26. **Bukatu:** 01:51:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>San Juanetan abesten zutena kantatzen du: "Doniene bezpera gabien, abadiak hasarratu zirien ..."</p>

Transkripzioa

Doniene bezpera gabien,
abadiak hasarratu zirien,
ez zezen besterik egiten,
alkarrerri musturrek heusitten,

San Juan dabil soloetan:
artoetan eta garidxetan.
Artoak eta garidxek
Kaidxan gordetan,
sorgiñek eta lapurrek
surten erretan.

43. "Gabian farrandan ta goizian logure..." abestia

- **Erref:** GER-027/081
- **Iraupena:** 0:00:11. **Hasi:** 01:52:23. **Bukatu:** 01:52:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Parranda osteko "Gabian farrandan ta goizian logure..." abestia kantatzen du.</p>

Transkripzioa

Gabian farrandan ta goizian logure
ai ena maitia ez zara osasunen gure.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com